

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**Ikasturtea
amaitu,
udalekuak hasi**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Hezkuntza	943 25 50 06
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Gaztelekua	943 15 71 61
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47



Ale honetan zer?

Aukera, nahi duten guztientzat	3
Eskaintza	4
Udaleku ibiltaria	6

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu **Azpeitian Zer?** aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria **943 15 71 85** (Alkatetza) telefonoan.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe, eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.



Aukera, nahi duten guztientzat

Azpeitiko haur eta nerabe guztiek aisialdiaz elkarrekin goatzeko aukera izango dute, 2-18 urte arteko herritarrentzat eskaintza zabala prestatu du Gazteria Sailak.

Aste batzuk bakarrik falta dira ikasturtea amaitzeko, eta oporrak hartzearekin batera, Azpeitiko haur eta nerabe guztiek aisialdiaz elkarrekin goatzeko aukera izango dute aurten ere. 2-18 urte arteko herritarrentzat eskaintza zabala prestatu du Gazteria Sailak. Berrikuntza gisa, udaleku ibiltari bat ere antolatu du lehen aldiz, DBH3tik batxiler 2ra arteko gazteentzat.

Lan eta baliabide asko eskatzen dituen eskaintza da. Iaz, adibidez, 600 haur eta gaztek baino gehiagok parte hartu zuten, eta 55 begiraleko lantaldea aritu zen haiekin lanean. Azpeitiko Udalarentzat, ordea, garrantzitsua da aisialdirako aukera bat bermatzea nahi duten haur eta gazte guztiei. Horregatik, ez du mugarik jartzen kopuruan, eta izena ematen duten guztiek izaten dute parte hartzeko aukera.

Herriko haur guztiengana iristen den eskaintza



Uda sasoiari iristearekin batera, urtez urte gero eta zabalagoa da haur eta nerabeentzako aisialdi eskaintza; izan ere, kirolari, hizkuntzei nahiz bestelako arloei lotutako gero eta jarduerak gehiago antolatzen dira herrian nahiz herritik kanpo. Alabaina, Azpeitiko Udalak beharrezko ikusten du eskaintza publiko bat ere egotea, herriko haur guztiek elkarrekin jolasteko aukera izan dezaten, beraiei beharrak edo egoera edozein izanda ere. Hain zuzen ere, haur guztiei gozamenerako aukera hori emateko helburuarekin antolatuko ditu udaleku irekiak aurtengo ere.

2 urteko haurrengandik hasi, eta 18 urte arteko gazteenganaino iristen da eskaintza, eta kopuru aldetik, arrakasta handia izaten dute udalekuek nahiz udako eskaintzaren barruko jarduerak. Iaz, esate baterako, 630 haur eta gazte hartu zuten parte, eta 55 hezitzaileko lantaldea aritu zen haiekin lanean. Herriko haur guztiei eman nahi zaien parte hartzeko aukera, ez da gehieneko plaza kopururik jartzen, eta izena ematen duten guztiak hartzen dira. Behar bereziren bat izatea ere ez da oztopo izaten, behar horri egokitutako begiraleak jartzen baitzaizkie haurrari edo nerabeari.

PRESTAKETAK, ASTE SANTUTIK

Ez da makala halako kopuru batentzako hainbeste gauza antolatzeak atzetik duen lana. "Aste Santurako hasten gara udalekuak antolatzen: begiraleen deialdia nola egin, aurreko urteetako memoriak aztertu eta zer aldatu ikusi, umeen gurasoek egin zituzten balorazioak errepasatu... Barne lan hori egitea izaten da lehen pausoa", kontatu du Aloña Larrañaga Gazteria teknikariak.

Urtean zehar Gazteriako zerbitzuetan zutabe diren balioak hartzen dituzte kontuan udalekuetan ere, hala nola harremanen garrantzia, hezkidetzak, euskararen erabilera eta ingurumenaren zaintza. "Beste eskaintza bat da udalekuena, ume kopurua ere handiago izatean da, baina guretzat, neurri batean, eguneroko lanaren jarraipena da. Hala ere, nabarmenduko nuke lantaldeak ilusio bereziarekin hartzen duela udako erronka hori".

Adinaren arabera antolatzen dute egitaraua. HH2koak (Txipristiñak) dira txikiak, eta horiek Sanjuandegiko ludotekan elkartzen dira, beraiek bakarrik, eta handik mugitzen dituzte egin beharreko ekintzetara. HH3koak (Udan Txiki) ere

bakarrik ibiltzen dira; handik gorakoetan, berriz, nahastu egite dituzte adin tarteak: HH4-HH5 (Udan Koxkor), LH1-LH2 (Udan Jolas), LH3-LH4 (Udan Mugi), LH5-LH6 (Udan Alai), eta DBH1-batxilera2 (Udabentura).

OREKAREN BEHARRA

Ume guztien gustuak ez dira berberak, eta eskaintza osatzerakoan kontuan hartzen dute faktore hori. "Ekintzetan oreka bat aurkitzen saiatzen gara: mugimendua eskatzen duten jolasez gain, jolas lasaiak ere sartzen ditugu; ura sartzen saiatzen gara; taldeko jolasetan, berriz, jolas kooperatiboan alde egiten dugu, lehia alde batera utzita; horrez gain, urtero zerbait berria antolatzen ahalegintzen gara".

Larrañagaren esanetan, begiraleen iritziak ere kontuan hartzen dituzte, azken batean, haiek egoten direlako haurrekin. "Begiraleekin formazio egun bat egiten dugu, eta programazioa beraiekin ixten dugu. Horrekin batera, formazio egun horretan, zein den lan markoa azaltzen diegu, nola lan egitea nahi dugun; gerta daitezkeen zenbait egoera nola kudeatu ere lantzen dugu, eta beraiei zalantzak argitzen ditugu. Segurtasun hori asko eskertzen dute begiraleek".

EGUNEZ EGUNEKO JARRAIPENA

Era berean, Azpeitiko udal udalekutan egunez eguneko balorazioek garrantzi handia dutela kontatu du Gazteria teknikariak. Eguneroko ekintza hasi aurretik, ordu erdi bat hartzen dute, eta programa bakoitzeko lantaldea biltzen da koordinatzailearekin. Egun horretarako aurreikusitako programan zer egin zehazten dute, eta erabakitzen dute ordutegiak errespetatzeko edo egin den programazioa aurrera eramateko ardura nork hartuko duen.

Eguerdian berriro biltzen dira, goiza nola joan den aztertzeko. Ostiraletan, ohi baino pixka bat luzeagoa egiten dute eguerdietako bilera, astearen balorazio orokorra egiteko. "Lan egiteko modu horrek badu indarra; guretzat ezinbestekoa da egunez eguneko jarraipen bat egotea. Beste

udaleku batzuetan lan egin izan dutenek esaten digute ez dutela horrela lan egin izan, baina gure lan egiteko modua hori da".

ZAINTZA ZERBITZUAREN ARRAKASTA

Haurren eta nerabeen beharrak kontuan hartuta prestatzen da udalekuetako eskaintza, baina gurasoek lana eta haurren zaintza uztartzeko dituzten zailtasunen jakitun, helduen beharrak ere hartzen dira kontuan. Eskola amaitu eta hurrengo egunean bertan hasi ohi dira udalekuak Azpeitian, eta hori asko eskertzen dute gurasoek. Aurtengo ostiraletan amaituko dute ikasturtea, eta hurrengo astelehenean bertan hasiko dira udaleku irekiak, ekainaren 24an hain zuzen ere. Gainera, ohi baino pixka bat luzeagoak izango dira, uztailaren 24a izango baita azken eguna.

Duela urte batzuetatik, zaintza zerbitzua ere eskaintzen da udaleku irekiekin batera, 08:30etik 10:00etara, eta zerbitzu horrek ere gero eta arrakasta handiagoa dauka. Hasieran, Sanjuandegiko ludotekan eskaintzen zen zaintza, baina txiki geratu zen tokia. Herriko bi ludoteketan jarri zen ondoren, baina bi espazio horiek ere ez dira aski dagoeneko. Iaz, esate baterako, 80 ume eman zuten izena zerbitzuan. Ondorioz, aurtengo Mixikordia izenez ezagutzen den eraikinean eskainiko da zaintza, eta elkarrekin egongo dira haur guztiak. 2 urteko haurrak izango dira salbuespena: haiek Sanjuandegiko ludotekan egongo dira, udalekuak ere han izango baitituzte.





Ibiltaria izango den udaleku bat, lehen aldiz

“Ibilaldi honek ezin al du aste osokoa izan?”. Udabentura programako parte hartzaileek galdera hori egin ohi zieten hezitzaileei. DBH1etik batxiler 2ra arteko gazteei zuzendutako udako aisialdi programa da Udabentura. Eskaintza osoaren barruan, bi gaueko ibilaldi bat egin izan dute aurreko urteetan, adinaren arabera banatuta, bi taldetan. Harreman politak sortzen dira ibilaldi horietan, bai elkarren artean, bai hezitzaileekin. Askok, gainera, aurretik ere ezagutzen dute elkar, Gaztelekuko erabiltzaileak direlako urtean zehar ere. Ondorioz, motz samar geratzen zitzairen bi gaueko egonaldi hori.

Gazteen eskaerak kontuan hartuz, aurten programara baliabide gehiago bideratzea erabaki du Azpeitiko Udalak, eta astelehenetik ostiralera

bitarteko udaleku bat antolatu du. Uztailaren 8tik 12ra izango da. Ezaugarri nagusi bat izango du udalekuak: guztiz ibiltaria izango da, eta egunero herri desberdinetan egingo dute lo. Lau etapatan banatuta, Nafarroa eta Gipuzkoa lotuko dituzte, Lantzetik Oiartzunera arteko ibilbidea osatuko baitute.

Lantzetik Elizondora artekoa izango da lehen etapa; Elizondotik Zugarramurdira artekoa bigarrena; Zugarramurditik Lesakara artekoa hirugarrena; eta Lesakatik Oiartzunera artekoa azkena. Abenturatik ere dezente izango duela aurreikus daiteke; izan ere, iristen diren herrietako udalek utzitako azpiegituretan pasatuko dute gaua gazteek: frontoi, ikastetxe nahiz aterpetxeetan. Oinezko etapa horiek egiteaz

gain, ibilbideak barne hartzen dituen herriak ezagutzeko hainbat jarduera ere izango dira udaleku ibiltarietan (partaide kopurua ikusitakoan itxiko dute egitaraua).

Mendiz mendi joango dira herri batetik bestera, begiraleekin batera, baina laguntza izango dute gauzak eramateko. Hain zuzen ere, udaleku ibiltariaren koordinatzailea furgoneta batean joango da, eta hark eramango ditu motxila handiak, eta behar-beharrezko gauzekin bakarrik egingo dute ibilbidea gazteek. Koordinatzaile hori bera arduratuko da gazteak iristen direnerako otorduak, lo lekuak eta gainerako gauzak prest izateaz. Izena eman duten guztiek izango dute udaleku ibiltarian parte hartzeko aukera, eta 75 euroko kostua izango du guztira.

Lau etapatako udaleku ibiltari bat egingo da, Lantzen hasi eta Oiartzunen amaituko dena.

BESTELAKO HAINBAT EKINTZA

Alabaina, Udabenturako eskaintza ez da mugatuko udaleku ibiltarira. Urtero bezala, beste hainbat ekintza ere antolatu dituzte DBHko eta batxilergoko ikasleentzat. DBH1ekoek eta DBH2koek ez dute udaleku ibiltarira joaterik izango, baina haiek ere bi gaueko egonaldia egingo dute Mutrikun eta Lekeition.

Ordu batzuetakoak edo egun osokoak izango dira gainerako jarduerak. Ohiko bihurtu den bezala, herriko eragileekin elkarlana bultzatzeko ahalegin bat egingo da aurten ere Udabenturan; horregatik, ekintzetako asko beste eragile batzuekin batera antolatuko dira: eskalada saiorako Sokaitz elkarteak kideen laguntza izango dute; skate ikastarorako eta mendi bizikletarako Arauntza Ridersekoena eta abar. Herrian dauden azpiegiturek erabiliko dituzte beste zenbait ekintzatarako, hala nola kalistenia parkea kalistenia saiorako eta igerilekuko kiroldegia ciclying eta TRX egiteko.

Beste herri batzuetara joateko aukera ere izango dute Udabenturako gazteek: surf irteera izango da Zarautzera, zaldi irteera Agorregira, piragua irteera Oriora eta scape room irteera Zarautzera. Ekintza guztietara beharrean, gustuko dituztenera bakarrik apuntatzeko aukera izan dute gazteek.



Energia Bulegoa

943 11 98 06
energia@azpeitia.eus

Ordutegia:

Astelehen, astearte eta
ostiraletan: 10:00etatik 14:30era.
Asteazken eta ostegunetan:
17:00etatik 19:30era.

www.azpeitia.eus